

Praktikak Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espazioaren barnean

Aitziber Lertxundi, Alaitz Mendizabal, Aitziber Olasolo
EHUko irakasleak

Artikulu honen helburua, enpresa-ikasketen barnean enpresetan egiten diren praktiken ikuspuntutik, gaur egungo unibertsitate-sistemek Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espazioan (EGHE) barneratzean izango lituzketen egokitzapen-aldaketak aztertzea da. Horretarako, era orokor batean, Euskal Herriko Unibertsitatearen irakaskuntza-egitura eta Enpresa Ikasketen Diplomaturako ikasketa-plana azaltzen dira. Jarraian, Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espazioa egituratzeko hasitako ekimenen azalpen labur bat egiten da. Gero, enpresa-ikasketetan praktikek duten garrantzia azpimarratzen da, egungo legedia erreferentzia gisa harturik. Eta amaitzeko, EGHEn barneratzeak enpresetan egiten diren praktiketan izango dituen eraginei buruzko zenbait hausnarketa egiten dira.

With this paper we pretend to analyze the possible consequences of the integration of the present university systems in the European Higher Education Area (EHEA), from the approach of the practices in business studies. First, we describe the present situation of both the University of the Basque Country and the Business Studies University School in San Sebastian. Then, we review the initiatives carried out for the configuration of the EHEA. Afterwards, in the third section, we approach the necessity of the practices in business studies and the current regulation of them. Finally, we reflect on the possible impacts of the EHEA in the practices in enterprises.

1. Sarrera

Euskal Herriko Unibertsitatea - Universidad del País Vasco (EHU/UPV) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoa da, Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen erakunde autonomoa.

EHU/UPV gizartearen zerbitzurako zuzenbide publikoko entitate bat izanik, Euskal Autonomia Erkidegoan goi-mailako irakaskuntza-zerbitzua eskaintzeko betebeharra du; horretarako, egitura propioak ditu irakaskuntzaren, ikerkuntzaren, ikasketen, kulturaren, kudeaketa-prozesuen eta jarduerak gauzatzeko dituen zerbitzuen inguruan diseinaturik.

Esarri zaion helburua betetzeko, EHU/UPVk, oinarrizko hiru zutabe ditu: Ikastegiak, Departamentuak edo Sailak, eta bietan parte hartzen duen Unibertsitateko Irakasleria.

Ikastegiei dagokienez, honakoak aurki daitezke: fakultateak, goi-mailako eskola teknikoak eta unibertsitate-eskolak.

Ikastegien funtzioak, EHU/UPVren estatutu berrien arabera, honakoak dira beste batzuen artean:

- Homologatutako tituluen edo EHU/UPVren berezko titulu akademikoen kudeaketa eta irakaskuntza antolatzea, edo espezializazio-ikastaroak, etengabeko prestakuntza eta kulturaren hedapena antolatzea.
- Urtero Irakaskuntza Eskaintza gauzatzea, EHU/UPVren irakaskuntza-programazioaren eta ikasketa-planen arabera, titulazio bakoitzean parte hartzen duten sailekin koordinatuz.
- Ikasketa-planak onartuak edo aldatuak izan daitezzen proposamenak egitea, eta proposamena EHU/UPVko beste organo batena izan denean onarpen edo aldaketen prozeduretan parte hartzea.
- Eskaintzen diren titulazioen funtzionamendu orokorra baloratzea.
- Irakasleriaren eta Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonalaren betebeharrak gainbegiratzea.
- Aurrekontua eta baliabide materialak kudeatzea eta giza baliabideak zuzentzea.

Laburbilduz, ikastegiak kudeaketa administratiboaz eta titulu akademikoak lortzeko unibertsitate-irakaskuntza antolatzeaz arduratzen dira.

Hau da, ikastegiak hezkuntzaren antolaketan duen garrantzia begi-bistan dago; izan ere, ikastegiaren lana baita eskaintzen dituen titulazioen antolaketa globala nahiz eta saila den bere eskumeneko ikasgaien irakaskuntza programatzearen arduraduna. Era berean, ikasketa-planen garapen egokirako ikastegia eta sailen artean egon behar duen lankidetzeta estua ere ondorioztatzen da; eta nola ikastegi zehatz batean dagoen sail jakin bateko kide den irakasleak bi erakunde horien artean dagoen lotura ahalbidetzen duen.

Era horretan, ikasketa-planak unibertsitate batek koordinatutako irakaskuntzen multzoak dira eta horiek gainditzeak titulu ofiziala eskuratzeko eskubidea ematen

du. Planak titulazio jakin bateko irakaskuntza globala antolatzeko erreferentzia gisa hartzen dira.

Ekonomia eta Enpresa Zientzien ikasketak Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskoletan (Enpresa Zientzietan Diplomatura) eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean (Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizenziatura, Ekonomian Lizenziatura, Finantza Zientzietan Lizenziatura, eta Ikerketa eta Merkatuko Tekniketan Lizenziatura) irakasten dira.

Jarraian, EHU/UPVko Enpresa Zientzien Diplomatura titulua lortzeko egin beharreko ikasketa-planean zentratuko gara.

Hurrengo taulan Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan 2003/04 ikasturteetik aurrera eskainiko den Enpresa Zientzien Diplomaturako ikasketa-plan berriaren egitura jasotzen da laburki, eta egokitzapen teknikoaren ondoriozko aldaketa berriak¹ barneratzen ditu.

1. taula. Kredituen banaketa

	URTEA	Derrigorrezko enborreko ikasgaiak	Hautazko ikasgaiak	Aukerazko kredituak	Karrera amaierako proiektu-ardoa	GUZTIRA
1 ZIKLOA	1	61,5	—	—	—	61,5
	2	49,5	—	—	—	49,5
	3	39	—	—	—	39
	Edozein ikasturte	—	36	21	—	57
GUZTIRA		150	36	21	—	207

Gaur egun indarrean dagoen urriaren 26ko (EBO 1990/11/20) 1422/1990 Errege Dekretuan jasotzen den planaren arabera, *Enpresa Zientzietan Diplomatura* titulazioaren helburua bikoitza da:

Alde batetik, Enpresa Zientzietan diplomatuari lan-merkatu sartzeko prestakuntza egokia ematea. Enpresa bateko sail desberdinetan kudeaketa eta administrazio-lanak aurrera eramateko gai izango da: kontabilitate finantzarioa eta kostuen kontabilitatea, kontuen ikuskaritza, finantzak, plangintza, marketina eta merkatu-raketa, giza baliabideen kudeaketa, etab.

Bestetik, Enpresa Zientzietan diplomatua unibertsitate-prestakuntza jarraitzeko gaitua eta prestakuntza dago. Horrela, lizenziaturako 2. ziklora edota 2. ziklokoak bakarrik diren titulazioetara pasatu ahal izango da.

1. 2003/2004 ikasturterako Donostiako diplomaturako irakaskuntza-eskaintza 2003ko otsailaren 28ko Eskolako Bileran onartu zen.

2. Espainiako unibertsitate-sistemaren egokitzapena Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espaziora (EGHE)

2.1. EGHE sortzeko ekimenen bilakaera

Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espazioa sortzeko egin diren bilerak eta ahaleginak asko izan dira. Kronologikoki honako hauek dira ekintza garrantzitsuenak:

- Sorbonako Adierazpena (Paris, 1998). Frantziak, Alemaniak, Erresuma Batuak eta Italiak sinatutako lehen ahaleginen adierazpen honetan helburu nagusi bezala Europako goi-mailako hezkuntza-sistemaren egitura bateratzea finkatu zen, eta horretarako hainbat azpi-helburu ezarri ziren: sistemaren eta tituluen barne- zein kanpo-irakurgarritasuna lortzeko beharra; mugikortasuna bultzatzea; eta titulatuaren lan-integrazioa erraztea. Azken bi horiei dagokienez, Kredituen Transferentziarako Europar Sistema (KTES) sortzea eta tituluen nazioarteko baliagarritasuna bultzatzea proposatu ziren.
- Boloniako Adierazpena (Bologna, 1999). Hogeita bederatzi herrialdek onartutako adierazpen honetan Sorbonakoan proposatutako helburuak indartu eta zabaldu ziren, eta EGHE eratzeko oinarriak finkatu ziren. Zehazki, bilera honetan onartutako helburuak hauek izan ziren:
 1. Erraz uler eta aldera daitekeen tituluen sistema bat ezartzea, Tituluen Europako Gehigarriaren bidez.
 2. Oinarrizko bi zikloez osatutako sistema bat ezartzea. Lehenengoa kualifikazio profesionalera zuzendua dago eta bigarrena Master edo Doktorego baten lorpena.
 3. KTES bezalako kredituen sistema bat ezartzea.
 4. Unibertsitateetako eta Europako goi-mailako hezkuntzako beste erakundeetako ikasle, irakasle eta administrazioko langileentzat mugikortasuna bultzatzea.
 5. Kalitatearen bermerako lankidetzaren europarra bultzatzea, irizpideen diseinuaren eta metodoen alderagarritasunaren ikuspuntutik.
 6. Goi-mailako hezkuntzan dimentsio europarra bultzatzea, curriculumaren garapenean erakunde arteko lankidetzan, mugikortasunean eta hezkuntza- eta ikerketa-programa bateratuetan bereziki.

Boloniako Adierazpenean hartutako konpromisoa 2010. urterako helburu horiek betetzea da. Aldi berean, Bolonian proposatutako helburuak berrikusteko bi urteko epean beste bilera bat egitea erabaki zen; bilera hori Pragan egin zen 2001eko maiatzean. Denbora tarte horretan, prozesuan parte hartzen duten agenteek Pragako bilkurarako dokumentuen prestakuntzarekin² lotutako hainbat ekimen eraman dituzte aurrera.

2. Laburki aipatzeko: Kredituen Transferentzia Sistemai buruzko Nazioarteko Mintegia (Leiria, Portugal, 2000), Europako Kontseiluko Zuzendaritzaren bilera (Niza, 2000), Goi-mailako Titulazioen Mintegia (Helsinki, 2001), Nazioarteko Hezkuntzaren Análisis (Malmö, Suedia, 2001), Europar Ikasleen Konferentzia (Göteborg, 2001) eta Europako Goi-mailako Hezkuntzako Erakundearen Kontentzioa (Salamanca, 2001).

- Pragako Adierazpena (2001). Bertan, Bolonian proposatutako helburuak berrikusi ziren eta aurreko bileretako beste zenbait iradokizun ere landu ziren. Adierazpen honek Boloniakoan hartutako konpromisoa berretsi zuen eta elementu berriak ere gaineratu zituen:
 - Europa mailan lehiakortasun handiagoa lortzeko beharrezko elementutzat etengabeko ikasketak bultzatzea. Horrela, gizarte-kohesioa, aukeraberdintasuna eta bizi-kalitatearen hobekuntza bultzatu nahi dira.
 - Unibertsitateen, goi-mailako irakaskuntza-erakundeen eta ikasleen eginkizun aktiboa bultzatzea prozesuan zehar.
 - EGHEren erakargarritasuna handitzea, kalitate-bermeen sistemen garapenaren eta ziurtagiriaren bidez.
- Berlingo Konferentzia (Berlin, 2003). Irailean egindako bileretan, ordura arte lortutako aurrerapenak berrikusi ziren, baita Europako goi-mailako hezkuntzaren integrazio-prozesuan etorkizunean jarraitu beharreko bideak eta lehentasunak finkatu ere. Alderdi garrantzitsuenen artean, EGHEren eta Europako Ikerkuntza Espazioaren arteko harremana sendotzeko beharra aipatzen da, bi horiek izanik jakintzan oinarritutako gizarteko zutabeak.

Azken bilkura horretan, zenbait herrialde europarrek prozesuan parte hartzeko eginkizun eskaerak onartu ziren, horrela partaide-kopurua 40 herrialdetara handituz.

Hurrengo konferentzia 2005eko maiatzean Bergen-en (Norvegia) ospatuko dela aurreikusia dago.

Espainiar Estatuan bere aldetik, Europa mailako ospakizunekin batera, zenbait ekimen bideratu dira Espainiako hezkuntza-sistema Europako neurrietara egokitzeko helburuarekin. Neurri garrantzitsuenetariko batzuk abenduaren 21eko 6/2001 Unibertsitateen Lege Organikoan (LOU) jasotzen dira. Lege horrek ikasketen egituretan egin beharreko aldaketak posible izan daitezen honako aurreikuspenak egiten ditu EGHEri buruzko XIII. tituluaren:

1. Espainiar sistema EGHEn integratzeko Gobernuak, autonomia-erkidegoek eta unibertsitateek dagozkien eskumenen barnean beharrezko neurriak hartzea (87. Art.).
2. Espainiar unibertsitateetako tituluak Tituluaren Europako Gehigarriarekin osatuak izan daitezen neurriak hartzea (88-1 eta 3 Art.).
3. Lurralde nazional osoan ikasketa bakoitzaren modalitate-zikloak eta izaera ofizialeko tituluak finkatzea, aldatzea edota egokitzea (88-2 Art.).
4. Kredituen Europako Sistema eratzeko beharrezko neurriak hartzea (88-3 Art.).
5. Beka, laguntza eta ikasketa-kredituen bidez ikasleen mugikortasuna EGHEn bultzatzea (88-4 Art.).

Indarrean sartu berri diren dekretuetan espainiar legediaren egokitzapen hau antzematen da. Alde batetik, abuztuaren 1eko 1044/2003 Errege Dekretuak, unibertsitateek Europako Tituluaren Gehigarria onar dezaten jarraitu behar duten

prozedura ezartzen du; eta bestetik, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuak, kredituen europar sistema, izaera ofizialeko tituluen kalifikazio-sistema eta lurralde nazional osoan horien baliozkotasuna ezartzen ditu.

2.2. Espainiako unibertsitate-sistemaren integrazioa Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espazioan

Aurrekoari jarraituz eta EGHEn espainiar unibertsitate-sistemaren integrazioan zentratuz, neurri zehatzak hartzeko beharra azpimarratzen da. Bereziki garrantzitsuak dira kredituen europar sistema, titulazioen egitura, Tituluen Europar Gehigarria eta kalitate-bermei buruz hartu beharreko neurriak.

Horrela, neurriok era nabarmenean eragingo diete titulazioen diseinuari eta kredituei. Gaur egungo espainiar unibertsitate-sisteman kredituak irakasleek emandako eskola-orduen (teoriko zein praktikoak) arabera definitzen dira. Boloniako Adierazpenetik sortutako kredituen europar sistemak, berriz, (ECTS bezala ezagutzen dena) Europar Batasuneko kide diren edozein herrialdetako unibertsitateetan egindako ikasketek balioa izan dezaten ahalbidetuko duen baliokidetzaren sistema bat proposatzen du. Zentzu horretan eta aurretik aipatu den bezala, Unibertsitateen Lege Organikoak, bere XIII. tituluko 88. artikuluan, espainiar sistema EGHEn integrazteko beharrezko neurrien artean kredituen europar sistema bat sortzea aipatzen du. Era berean, kredituen europar sistema ezartzen duen 1125/2003 Errege Dekretuak (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, 2003), kreditu europarra honela definitzen du: ikasketa-programaren helburuak betetzeko ikaslearen lan-orduak adierazten dituen neurri-unitatea (3. Art.). Ikaslearen lanean oinarritzen den *kreditu berri* horren ezarpenak aldaketa garrantzitsuak ekarriko ditu espainiar unibertsitate-sisteman, non oraindik indarrean dagoen eskola-orduetan oinarritutako kreditu-sistema erabiltzen den.

- Eskola teoriko eta praktikoen orduetan oinarritutako kredituek hezkuntza irakasleen lanaren arabera neurtzen dute.
- Ikaslearen lana neurtzen duten kredituak, ikasketara eta ongi zehaztuta dauden helburu batzuen lorpenera zuzenduta daude. Ikasturte baten kalitatea ez du zehazten emandako eskola-orduen kopuruak, ikasleak analisi eta sintesirako gaitasunarekin ikasgaiak bereganatu eta menperatzeko duen gaitasunak baizik.

Laburbilduz, europar kredituak ikaslearen lanean oinarritutako hezkuntza-sistema berri bat planteatzen du, eta ez irakaslearen lanean oinarritua. Horregatik, etorkizuneko ikasketa-planen eta irakaskuntza-programen diseinua europar unibertsitateek gainditu beharreko erronka nagusiak dira.

Kredituen sistemaz kanpo, Boloniako Adierazpenak finkatutakoaren arabera, titulazioak bi ziklotan egituratzeko egungo ikasketa-planak berrikusi eta egokitu direla garbi dago. Lehenengo zikloan edo mailan oinarritutako ikasketak eta prestakuntza orokorrak jasoko dira, jarduera profesionalaren prestakuntzara zuzendutako ikasketekin batera. Hori gainditzeak Lizentziatura, Ingeniaritza edo/eta Arkitekto titulua jasotzeko eskubidea emango du, eta titulazioaren arabera 180 edo 240 kredituko (ECTS) iraupena izango du. Bigarren zikloa edo postgradua Masterra edo Doktoregoa lortzeko ikasketek osatuko dute. Horrela, ziklo hori dagozkien

ikasketetan sakontzera eta espezializatzerara bideratuko da, edo baita ikerketetarako prestakuntzara ere; hori gainditzeak Master edo Doktore-titulua ofiziala lortzea dakar, hurrenez hurren. Bigarren ziklo horren iraupena 60 eta 120 kreditu bitartekoa izango da, titulazioaren arabera. Hirugarren zikloa doktore-tesi bat burutu eta defendatzea izango da, doktore-titulua lortzea ahalbidetuz.

Egitura berri horren ezarpenari dagokionez, 2003ko urria eta 2006ko iraila bitartean titulu berrien diseinua eta onarpena hastea aurreikusia dago, eta 2009ko urrirako ikasketa-plan berriak amaituta egotea espero da. Orokorrean, 2010. urterako ezarpen osoa amaitua egongo dela uste da.

3. Praktiken benetako testuingurua gaur egun.

3.1. Unibertsitate-ikasketeki lotutako arazoak.

Unibertsitateak, goi-mailako irakaskuntza-erakundea denez, helburu bikoitza du: gizabanakoak gizartean bizitzeko prestatzea eta ingurunearen behar aldakorretara eta baldintzetara irakaskuntza egokituz gizarteko beharrei erantzutea. Unibertsitateak gizarteko beharrei erantzun behar dien ustea dago eta hori da, hain zuzen ere, unibertsitate-ikasketen ingurune legalak adierazten duena.

Hala ere, nahiz eta egungo unibertsitate-sistemak zientzia gizabanakoen, enpresen eta, orokorrean, antolaketen ohiko jardueretara bideratzeko espiritua izan, ez da ahaztu behar unibertsitate-irakaskuntzak gaur egun gizarteko beharrak asetzeko ahalmena murrizten dioten arazoak dituela.

Aztertzen ari garen unibertsitate-prestakuntza dela eta, bereziki garrantzitsua da guretzat enpresa-munduak diplomatu berriei buruz duen iritzia, non honako defizientziak aurkitzen dituzten:

- Jasotako prestakuntza teorikoegia da eta alde praktiko gutxi du.
- Unibertsitarioek jasotzen dituzten ezagutzak askotan orokorregiak dira, eta batzuetan ez dituzte ideia eta teknologia eguneratuak barneratzen.
- Aipatutako ezagutzek ez dituzte ikerketa eta sorkuntzarako prestatzen.
- Ikasleen prestakuntzan ez da sartzen giza harremani buruzko ideiarik eta etorkizunean aginte-postuak hartzeko beharrezkoak dira.
- Ez dago enpresa-munduarekin harreman nahikorik haren benetako beharrak zein diren jakiteko.

Kexa horietako batzuek unibertsitateak titulatuari eman beharreko prestakuntza espezifikoaren eta enpresek behar dutenaren arteko doikuntzarekin erlazioa dute. Enpresariak egindako kritiketako beste batzuk, berriz, eztabaidagarriak dira; ez baita erraza bereiztea zer den teoria eta zer praktika, edota epe ertainera hobe den teoria on bat edo inguruneko baldintzak aldatzen badira erabilgarri izateari utziko dion ezagutza praktikoak izatea³.

3. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Departamentuak, Egailanen bidez 2001 urtearen amaieran 1998ko promozioan titulatuak ikasleen artean eginiko ikerketa batek, EHU/UPVn batez besteko langabezia-tasa %11 dela azaltzen du. Tasa hori lan egiteko adinean dauden unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleriaren langabezia-tasa baino baxuagoa da, azken hori %12,3

Gainera, unibertsitatea enpresetik aparte mugitzen dela dioen kexari erantzun hau eman dakioke: unibertsitateak dituen baliabideekin eta enpresen laguntza faltarekin zaila dela ikasle guztientzat praktikak lortzea, nahiz eta ordaindu gabeak izan. Hala eta guztiz ere, praktika horiek ikasketa-plan berrietan jasotzen dira.

EHU/UPVk lan-sarbiderako arloan honako tresnak garatu ditu orain dela gutxi: borondatezko praktiken legedia, Praktiges Online eta Lanbila Online aplikazioak, Egailanekin kontratatutako Lan Behatokia, Enpresen Unibertsitate Hazitokia (Bizkaiko kanpua) eta Aula Bic Berrilan (Gipuzkoako kanpua). Lan Sarbiderako Zerbitzu bat ezartzea ere pentsatua dago. Horrekin guztiarekin, gure inguruneke beste unibertsitateetatik bereiziko gaituen elementu batean sakondu nahi da.

Era berean, Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolak (EIUE) enpresekin harremanetarako bulego bat zabaldu du (Bidelan) eta horren helburua ikasleei lan-merkatuan sartzeko erraztasunak ematea da.

Bidelanek, erlazionatutako eta osagarriak diren bi arlo kudeatzen ditu gaur egun, praktiken poltsak eta lan-poltsak, baina etorkizunean Eskolak enpresekin dituen harreman guztiak zuzentzeko asmoa du. Kudeaketa-lan horretarako gehienbat EHU/UPVk zehazki diseinatutako aplikazioak erabiltzen dira: Praktiges, praktiken kasuan, eta Lanbila, lan-poltsaren kasuan.

Enpresarekin Harremanetarako Bulegoaren (Bidelan) beste zereginetako bat, harremanetan dauden enpresetik informazioa jasotzea da, Enpresa Zientzietako ikasleen prestakuntza-beharrei buruz, ikastegiaren irakaskuntza-eskaintza behar horietara egokitzeko asmoz.

Lan-poltsetan, ikastegian diplomatura nahiz lizentziaturako ikasketak amaitu dituzten ikasleez gain, bi karrera horietako edozeinean matrikulatutako ikasleak ere apunta daitezke. Momentuz lan-poltsa horietan 496 ikasle daude izena emanda⁴.

Era berean, Donostiako EIUEk hainbat enpresarekin sinatu ditu lankidetzahitzarmenak (bankuen sektorea, auditoriak, etab.) titulazioko kredituen %50 gainditu duten Eskolako ikasleek praktikak egin ditzaten, Hezkuntza Lankidetzeta programei buruzko ekainaren 19ko 1497/1981 Errege Dekretuak (partzialki 1845/1994 Errege Dekretuak, irailaren 9koak, aldatua) araututakoaren arabera. Praktika horiekin aukera askeko kredituak amortizatzea posible da (praktiketako 30 ordu ikasketa-kreditu 1 balio dute; gehienez 20 kreditu lor daitezke ziklo bateko titulazioko praktiketari eta 30 bi zikloko titulazioetan)⁵.


baita. Donostiako Enpresa Diplomatura EHU/UPVren lehiakortasun gutxieneko karreraren artean dago, %18ko langabezia-tasarekin. Hala ere, adierazi behar da diplomatu horietako askok Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura (EAZL) lortzeko ikasten jarraitzen dutela, hori Bilboko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak Donostian ezarri zuen 95/96 ikasturtean. Iturria: titulatu lan-munduko sarrerari buruzko inkesta (EHU/UPV 2001, 46. or.).

4. Bidelanek eskainitako datuak 2003/11/24an.

5. Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolak kudeatutako praktika-kopurua enpresetan nabarmen handitu da azken urteotan, 1995/96 ikasturtean 73 izatetik 2002/03 ikasturtean 230 izatera pasatuz. Era berean hezkuntzako lankidetzeta-programetan parte hartzen duten enpresen kopurua ere handituz doa. Zehazki, enpresa parte-hartzaileen kopurua 1995/96 ikasturteko 43tik 165ra pasatu da 2002/03an.

Hurrengo grafikoan EIUEn azken urteetan ikasleek enpresetan egindako praktika-kopurua jasotzen da.

1. grafikoa. Ikasleek egindako praktika-kopurua



Iturria: Bidelanek eskainitako datuetatik abiatuz egindakoa.

Eskola honetako praktiken errealitatea sakontasun handiagoz azaltzeko asmoz, eta Bidelanen lan-metodologian eta erabilitako aplikazio informatikoetan oinarrituz, bertan parte hartzen duten elementuei buruz (ikasleak, enpresak, tutoreak eta ikastegia bera) hainbat eratako informazioa eskura daiteke. Informazio hori guztia oso garrantzitsua da Donostiako EIUetik parte-hartzaileek zer eskatzen duten jakiteko eta elementu guztientzat ahalik eta era eraginkorrean praktikak kudeatzeko.

Jarraian, hau guztia adibide batzuekin osatuko dugu. Ikasleen ikuspuntutik, praktikak eskaintzari nola doitzen zaizkion, praktiken interesa, enpresaren jarraipena eta abarri buruzko informazioa lor daiteke; baita praktiketan ematen diren laguntza-poltsei buruz ere.

Enpresek eskatzen dituzten ikasleen ezaugarriei dagokienez, hizkuntzak jakitea (euskara, frantsesa, ingelesa, besteak), gidatzeko baimena izatea, inguruan bizitzea eta abarri buruz eskatzen dituzten praktika-kopurua kontsulta daiteke.

Enpresa parte-hartzaileen tamaina eta honako faktore hauek ere azter daitezke: praktikak enpresari eginiko ekarpena, pertsonaren egokitzapena praktikara, e.a. Bestalde, ikasleak enpresan azaldu dituen gaitasunei buruzko informazioa lor daiteke: lanerako gaitasuna, lanaren kalitatea, azkartasuna, aldaketetara egokitzeko gaitasuna, sormena, ekimena, lidergorako ezaugarriak, gainditzeko nahia, etab.

Azkenik, beste informazio-mota garrantzitsu bat tutoreari buruzkoa izango litzaiteke; izan ere, elementu esanguratsua da praktiketan irakaskuntzaren antolaketarekin nolabaiteko harremana duelako. Horrela, sail bakoitzak baimendutako praktika-kopurua, etab. azter daitezke.

Bidelanen bidez lor daitekeenaren frogapen honen xedea izan da Donostiako EIUek sortutako Enpresekin Harremanetarako Bulegoak aurrera eramán dituen jarduerak azaltzea, eta eskaintzen dituen aukeren ikuspegi bat izatea. Horrek guztiak kudeaketa eraginkorragoa lortzea ahalbidetuko du eta Donostiako EIUeri dagokion ingurune berrira azkarrago egokitzen lagunduko dio.

3.2. EHU/UPVren borondatezko praktiken araudia

Aurreko zatian aipatutako EHU/UPVren tresna guztietatik praktikekin jarraituko dugu; alde batetik, unibertsitateari buruzko kexen zati bat konpontzeko, eta, bestetik, inguruneke beste unibertsitateetatik bereizteko elementutzat hartzeko.

2002ko apirilaren 26an EHU/UPVko ikasleriarentzat Enpresetan Borondatezko Irakaskuntza Praktiken Antolaketa, Koordinazio eta Kudeaketari buruzko Araudia onartu zen, eta hori borondatezko praktikei aplikatzen zaien araudia da.

Borondatezko praktika, aipatutako araudiaren arabera, honela definitzen da: «unibertsitateko ikasleen prestakuntza indartzeko eta osatzeko helburuarekin enpresetan egiten den praktika, etorkizunean ikaslearen lan merkaturako sarrera erraztuko duena eta titulua lortzeko derrigorrezkoa ez dena».

Beraz, borondatezko praktiken helburua da ikasleei lan-munduan sartzea ahalbidetuko dien edukin praktikoek ezagutza ematea. Horretarako beharrezkotzat jotzen da ikasleak unibertsitateko ikasketak eta enpresakoak jarraipen batekin eta txandakaturaz garatzea, ezagutza teorikoak eta praktikoak uztartuz, behin ikasketak amaitutakoan horien erabilera maximotzeko.

Bete beharreko baldintza nagusienak hauek dira:

- Ikasleek titulazioa lortzeko beharrezkoak diren kredituen %50 gutxienez gainditua izan behar dute, eta bi ziklokoa bada, lehen zikloa osorik gainditua eduki behar dute. Bigarren ziklokoak bakarrik diren ikasketetako ikasleek lehen urtetik egin ditzakete praktikak.
- Praktiken iraupenak ezin du ikasturte akademikoaren iraupen osoaren %50 gainditu.
- Ikasketa-planean indarrean dagoen Aukera Askeko Araudiak ezarritako baldintzak betez gero, kreditu bezala baloratuko dira.

Ikastegiaren ikuspegitik, ikastegiko Praktiketako Programaren Arduradunaz gain, beste elementu garrantzitsu bat *tutorea* da; praktiketari dauden ikasle guztiek izango dute eta ikaslearen jarraipenaz eta laguntzaz arduratuko da, enpresarekin batera ikaslea ebaluatzeaz gain. Tutore bakoitzak ikasturteko ezin izango ditu 20 ikasle baino gehiago eduki praktiketari eta ikasleko 0,01 kreditutako kargua emango zaio, meritu bezala jasoko dena.

Praktiken garapenerako prozesua honakoa da:

1. EHU/UPV eta enpresaren edota erakundearen artean hezkuntza-lankidetzarako hitzarmen bat sinatu behar da; bertan praktiketari egingo diren jarduerak, ikasleak aukeratzeko irizpideak, ikastegian ikasleei tutoreak esleitzeko

irizpideak, praktiketako egutegi eta ordutegiak eta, azkenik, praktiken ebaluazio- eta kontrol-sistemak jasoko dira.

2. Hautagai egokien zerranda egiten da eta hautagaiaren aukeraketaz enpresa arduratzen da.
3. Praktiken ordutegiak ikaslearen ikasketa-jarduerarekin bateragarria izan behar du.
4. Ikasleak enpresako instalakuntza eta beharrezko baliabideak erabiliko ditu praktiken garapenerako.
5. Enpresak, praktiketako ikasle bakoitzarentzat, erakusle bat izendatuko du. Erakuslea, ikastegiarekin adostasunean, jarduerak antolatzeaz, ikaslea enpresaren funtzionamenduaz eta antolaketaz informatzeaz, e.a. arduratuko da.

Prozesua enpresako erakusleak eta ikastegiko tutoreak elkarrekin egindako ebaluazioarekin amaituko da.

4. Ondorioak

EGHEN integratzeko prozesuak hainbat neurri hartzea eskatzen du. Espainia, lehen aipatu den bezala, aurreneko fase batean egungo kredituen sistema europar sistemara egokitzen saiatzen ari da. Beranduagoko fase batean ikasketa-plan berriak, adibidez, landu beharko dira.

Laburbilduz, oraindik hasierako proposamenetan dagoen egokitze-prozesu luzea da, eta etorkizuneko ikasketa-plan berrien diseinurako asko falta da. Beraz, integrazio-prozesu honetan aurrera egiten den heinean, gaur egun oraindik curriculum berriei buruz dauden zalantzak argitzen joango dira.

Ikasketa-planak dagokion titulua lortzeko beharrezkoak diren kredituen batura osoa osatzen duten ikasgaiak jasotzen ditu: enborrekoak, derrigorrezkoak, hautazkoak eta aukera askekoak. Gaur egun, EHU/UPVko Enpresa Zientzietan diplomatura-ikasketei dagokien ikasketa-planean, praktikak aukera askeko kreditu bezala jasotzen dira. Borondatezko praktikak ikaslearen prestakuntzarako osagai egokia dira eta lan-mundurako sarrera errazten dute. Hori bai, praktikak egin ahal izateko ikasleek irakasgai gutxi izan behar dituzte. Zentzu horretan, Unibertsitate Ikasketen egitura finkatzen duen eta Gradu Unibertsitate Irakaskuntza Ofizialak erregulatu dituen Errege Dekretuaren proiektuak bere zirriborroan ezartzen du «irakaskuntzara bideratutako ikasketa-planeko ordu teoriko eta praktikoez ezingo dutela gainditu ikasgaiaren guztizko kredituen %50a» (7.6 art.). Horrela, irakaskuntzako presentziako orduak murriztuko balira, prestakuntzarako osagarri bezala enpresetan praktikak egitea bultzatuko litzateke.

Aurretik aipatu bezala, EGHEren ingurune berrian egin beharko dira ikasketa-plan berriak. Horrela, praktikak aukera askeko kreditu kontsideratuz jarrai daiteke, egungo sistemarekiko aldaketa handiegirik eragingo ez lukeena; edota enborrezko, derrigorrezko edo hautazko kontsidera daitezke, egungo egoerarekiko aldaketa izango litzatekeena. Alde batetik, praktiken eskaintza-kopurua behar berrietara egokitu beharko litzateke eta ikasturte akademikoan zehar kudeatu (abuztua kenduko litzateke, eta gaur egun enpresek gehien eskatzen duten hilabetea da).

Gainera, ikasle bakoitzari tutore bat esleitu beharko litzaioke, eta praktikak derrigorrezkoak izatearen kasuan sailek lan asko izango lukete. Bestalde, ikastegiak, kasu honetan unibertsitate-eskolek, praktiken kudeaketa berrantolatu beharko lukete beraien bolumen handiagatik eta baldintza berrietara egokitu, esaterako, egutegietara. Laburtuz, lan-karga handiagoa suposatuko luke.

Praktiken garapena enpresa eskaintzailearen eta Unibertsitatearen arteko hezkuntzako lankidetzaren hitzarmen baten sinadurarekin hasten da. Gaur egun, ia enpresa guztiak espainiarrak dira, nahiz eta ez dagoen jatorriari buruzko mugarik. Testuinguru berriak bai unibertsitateak eta bai enpresek nazioarteko hitzarmenak egin ditzaten lagunduko du, ingurune globalizatuago bihurtuz. Praktiken nazioarteko proiektzioak kudeaketa zailduko luke. Gaur egun, ikasleek etxetik edo ingurune-tik gertu egiten dituzte praktikak. Etorkizunean, berriz, beste herrialde europarretan gauzatzeko benetako aukera egon dadin, zerbitzu hauek eskaintzen dituzten enpresekin harremanak izan beharko ditu ikastegiak. Horrek, bertako enpresekin konparatuz, enpresa laguntzaileen ezagupen txikiagoa eta horrek dakarren kanpoan burututako praktiken kalitatea murriztea ekar dezake. Hori eragozteko Europa mailan haien zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak bilduko lituzkeen lankidetzaren zerbitzu bat eratzea interesgarria suertatuko litzateke. Horrela, ikastegiak enpresei buruzko informazio gehiago jasoko lukete eta ikasleak enpresa horietan egingo lituzkeen jarduerak hobeto ezagutu. Bestetik, mugikortasunak edo ikaslea atzerrira joan beharrek ere praktiken kudeaketa zailtzen du. Praktiketara dagoen bitartean ikasleak izango duen egoitza kontuan izan beharreko beste faktore bat da. Kanpoko egonaldiaren oinarrizko beharrek estaltzeko ikastegiak erraztasunak eta laguntzak emango balitu, agian horrek ikasleak atzerrira joatera bultzatuko lituzke. Gai honetan unibertsitateak, eta zehazki ikastegiak, bete beharreko paperrari buruz erabakiak hartu beharko dira zalantzarik gabe etorkizun hurbil batean.

Bestalde, istripuen eta erantzukizun zibileko aseguruak kontuan hartu behar dira. Gai honetan EHU/UPVk erantzukizun zibileko poliza bat du praktiken gauzatzetik etor daitezkeen kalteak estaltzeko, eta gainera ikasleari aseguru osagarri bat eskatzen zaio. Testuinguru berriak EHU/UPVk kontratatutako polizaren eta aseguru osagarriaren berrikuspena eragingo du, beste herrialdeetako aseguru-sektoreen funtzionamenduaren arabera.

Gainera, hizkuntzen ezagupenak garrantzi handiagoa izango du praktiken prozesu osoan zehar: enpresekin lehen kontaktutik eta lankidetzaren hitzarmenaren sinaduratik praktiken amaiera arte. Hau da, egungo prozesu osoa gutxienez hiru hizkuntzatarara (euskara, gaztelania eta ingelesa) egokitu beharko da: dokumentuak, sistema informatikoa, elementu desberdinen arteko komunikazioa, hizkuntzen maila minimo bat eskatzea, e.a. Horrekin guztiarekin ikasleen mugikortasuna sustatuko duen beste arlo bat izango dugu: praktikak.

Tituluaren Europako Gehigarriak bere aldetik, ikasketei eta ikasleen ebaluazioari buruzko informazio osagarria jaso beharko du. Horrek praktiken ebaluaziorako erabiliko liratekeen irizpideen normalizazioa eskatuko luke. Hau da, praktiken baloraziorako irizpide objektiboak finkatzeko ikastegiak eta sailek egin beharreko esfortzuaz gain, komeniko litzateke Europa mailan irizpide horiek ezartzerakoan jarraituko liratekeen parametro nagusi batzuk finkatzea.

Bibliografia

- Arana Gondra, F. J. eta Espi Guzman, M. T. (2000): *Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola. Jatorria eta bilakaera (1915-2000)*. Arg. Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola.
- Barrutia, J. (2001): "Algunas Condiciones Necesarias para la Gestión y Organización en la Universidad", *Kudeaketa kuadernoak*, bol. 1, 1. zkia. , otsaila, 105-114.
- Conference of ministers (2003): Communiqué of the Conference of Ministers responsible for Higher Education. Berlín.
- Corcuera Manso, F. (2002): *La Declaración de Bolonia. El Espacio Europeo de Educación Superior. La utilidad de ECTS*. Universidad de las Palmas de Gran Canaria.
- CRUE (2000): *Informe Universidad 2000*, koord. J.M. Bricall, Espainiar Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia, Madril.
- , (2002): *La Declaración de Bolonia y su repercusión en la estructura de las titulaciones en España*. Espainiar Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia.
- Delors, J. (1996): La educación encierra un tesoro, Hezkuntzaren Nazioarteko Komisioaren txostena UNESCOrentzat XXI. menderako. Santillana, Madril.
- Elechiguerra Arrizabalaga, C. (1995): *La Universidad y sus pilares: docencia e investigación*. "Reflexiones sobre la Universidad y la Empresa" liburuan. Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolaren 175. urteurrena. EHUren argitarapen zerbitzua, Bilbo.
- Mendizabal, A. (2003): *Proyecto Docente*, Unibertsitate Eskolako Irakaslegora sartzeko aurkeztua, Bilbo.
- Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2003): *La Integración del Sistema Universitario Español en el Espacio Europeo de Enseñanza Superior*, Documento Marco, Madrid.
- Ortega y Gasset, J. (1982): *Misión de la Universidad*, Alianza argitaletxea, Madril.
- 1044/2003 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, "Suplemento Europeo al Título"-ri buruz.
- 1125/2003 Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, Europar Kredituen Sistema ezartzen duena eta izaera ofizialeko titulazioen kalifikazio sistema eta lurralde nazional osoan baliagarritasuna finkatzen dituena.
- 1422/1990 Errege Dekretua, urriaren 26koa, Enpresa Zientzietan Diplomatu Unibertsitate Titulu Ofiziala ezartzen duena berau lortzeko gainditu beharreko ikasketa-planekin batera.
- 1497/1987 Errege Dekretua, azaroaren 27koa, Izaera Ofizialeko Unibertsitate Tituluen Ikasketa Planetarako Irizpide Orokorak finkatzen dituena eta hauen baliozkotasuna lurralde nazional osoan.
- 2360/1984 Errege Dekretua, azaroaren 27koa, Izaera Ofizialeko Unibertsitate Tituluen Ikasketa Planetarako Irizpide Orokorak finkatzen dituena eta hauen baliozkotasuna lurralde nazional osoan.
- UPV/EHU (2001): *Memoria UPV/EHU 2001*. Arg. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- , (2003): UPV/EHUko Estatutuak, 2003ko maiatzaren 21eko klaustroan onartuak, Euskal Herriko Boletín Ofizialean argitaratzeke.
- EHU/UPVko enpresekin harremanetarako errektoreordetza (2002): Lehenengo eta bigarren zikloko ikasleentzat enpresetan borondatezko praktiken araudia.
- Granadako Unibertsitateko planifikazio, kalitate eta ebaluazioko errektoreordetza: Titulazioetako Ikasketa Planen diseinua. Antonio Bolívar. Andaluziako unibertsitateetan kredituen sistema europearra ezartzeko mintegia.